



2020R-435-20 Ebazpena, Arartekoarena, 2020ko ekaianren 12koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriz azter dezala Arabako espetxeko (Zaballa) preso ohi bati egindako egoitza-baliabide baten (laguntzarekin) adjudikazioa

Aurrekariak

1.- Erakunde honetan, 2020ko otsailaren 27an, Gasteizko herritar batek aurkeztutako kexa bat jaso zen. Kexa horretan, Arartekoaren esku-hartzea eskatzen zuen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (aurrerantzean, GOFE) mendeko harrera-etxe batean jarraitu ahal izateko, hark jakinarazi baitzion martxoaren 1ean utzi behar zuela.

Egoera zaugarrian dagoen preso ohia da kexagilea, eta gizarteratze-prozedurari ongi erantzuten ari zen 2017an baimenak lortzen hasi zenetik, 2018an hirugarren gradua eskuratu zuenetik eta baldintzapeko askatasuna berrerori gabe bete zuenetik, harik eta 2018ko uztailean behin betiko askatasuna lortu zuen arte. Kexagileak aitortua du I. graduko mendekotasun-egoera, % 64ko desgaitasun-maila eta ezintasun iraunkor osoa, hainbat patologiarengatik. Oso gaixo dago, alkoholismo kronikoa eta noizbehinkako diru-sarrera psikiatrikoak ditu.

Azkenik, kexagileak adierazi zuen Gizarte Segurantzaren 675 euroko pentsioa jasotzen duela hilean, eta kopuru horretatik seme-alabei dagokien 120 euroko pentsioa ordaintzen duela; halaber, 10.700 euroko zorra du Lanbiderekin bidegabe kobratutako zenbatekoengatik, eta zor hori ordaintzeko moduari buruzko berriak jasotzeko zain dago. Amaitzeko, adierazitako egoera eta bere narriadura pertsonala aintzat hartuta, esan du ezin diola inolako alokairu edo pentsiori aurre egin, eta era autonomoan bizitzeko laguntza, ahalmen edo baliabiderik ez duela.

2.- 2020ko maiatzaren 22an, gizarte politiken diputatuak Arartekotik egin genion informazio-eskaerari emandako erantzuna jaso zen. Bertan, adierazten da kexagilea Arabako espetxeko presoentzako harrera-pisura sartu zela 2018ko maiatzean. Foru diputatuak dio pisu hori GOFEn titulartasunekoa dela eta askatasunik gabeko preso gizoni eskaintzen diela zerbitzua, bigarren eta hirugarren graduko erregimenean eta, hala badagokio, baldintzapeko askatasunean.





2019ko uztailaren 14an behin betiko askatasuna lortu ondoren, GOFeren Balorazio eta Orientazio Batzordeak, kexagilearen egoera oinarri hartuta, zenbait luzapen eman zizkion pertsona horri, baliabidean jarrai zezan. Egonaldiaren azken luzapena 2019ko urrian eman zen, salbuespen gisa, 2020ko martxoaren 1era arte.

Azkenik, foru diputatuak honako hau adierazi du: *"otsailaren 20an, interesdunak berriz ere eskatu zuen egonaldia luzatzeko, eta Balorazio eta Orientazio Batzordean, 2020ko otsailaren 25ean, zerbitzua 2020ko martxoaren 1etik aurrera iraungitzea erabaki zen, eta ez zen baloratu salbuespen-egoera berri bat. Erabaki hori hartzeko arrazoia da erregularizatuta daukala udal arreta-sareko deribazioa eta balizko arreta, bai eta foru-sareko laguntza eta arreta ere, dagokion erreferentziako profesionalaren bidez".*

3.- 2020ko maiatzaren 28an, Arartekoak harremanetan jarri ginen presoak gizarteratzeko erakundeen sarearekin. Sare hori gure erakundearekin elkarlanean aritu ohi da, kexagilearen egungo egoera aurkitu eta ezagutzeko, martxoaren 1erako aurreikusitako ostaturko foru-zerbitzua iraungi egin delako eta SARS COVID 19ak eragindako pandemiaren ondoren sortutako egoera larria eta horren ondoriozko alarma-egoera direla eta. Foru diputatuak bere erantzunean adierazi zigun udal arreta-sarera bideratu dela, eta foru-sarean lagundu eta artatu dela. Hala ere, jakin ahal izan dugu kexagileak hautsi egin duela berak zeraman gizarteratze-prozesu positiboa, eta kalera itzuli dela Gasteizen logela edo pentsio bat alokatzea ezinezkoa delako eta pertsona horrek argi eta garbi behar duen laguntza integraleko prozesua hautsi delako. Hori guztia, Gasteizko Udalaren Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzuan jasotako arreta gorabehera.

Era berean, osasun-egoera nabarmen okertu da, eta gizarte-bazterketako egoera larriagotu. Egoera hori arindu egin da, gutxienez, pandemian etxerik ez duten pertsonentzat ezarritako gailuei esker. Horrela, jakin ahal izan dugu pertsona hori Lakuako frontoian egon dela lotan, zeina horretarako gaituta baitzegoen. Gune hori ekainaren lehen egunetan ixtea aurreikusita dago, beraz, laster kalera itzuliko da. Pertsona hori beldurtuta eta kezkatuta dago bere osasun-egoera ahula dela eta.

4.- Arartekotik, harremanetan jarri gara era berean interesdunaren erreferentziazko profesionalarekin MOTZ zentroan (Osakidetzako Mendekotasunen Orientazio eta Tratamendu Zentroa, Gasteizen). Profesional horrek, urteak daramatzana kexagilearekin harremanetan, azpimarratu zigun kexagileak narriadura larria jasan zuela foru-baliabidean bi urtez egonkor egon ondoren, eta ezin izan zuela alokairuko





logela bat eskuratu bere profilagatik eta diru-sarrera eskasagatik, udal-zerbitzuek iradokitzen zuten bezala, baina, batez ere, laguntza integrala behar zuelako, mendekotasun-maila handia zuelako².

Era berean, Lakuako frontoia berehala itxi ondoren kalera itzultzean pertsona horren bizi-arriskuan zegoela ikusita, Aldundiko erreferentziazko gizarte-langileari arriskuaz ohartarazi ziola esan zigun, eta "Besarkada etxea" foru-baliabidean plaza bat eskuratzeko aukera iradoki ziola. Era berean, azpimarratu zuen 25 urtetan zehar izandako esperientzian ez zuela ikusi bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako horrelako ostatu-arazo larririk Gasteizen.

Gogoetak

1.- Arartekoa sortu zenetik —duela 30 urte—, erakunde honek preso bizi-baldintzak zaindu izan ditu, zaurgarritasun bereziko kolektiboa da-eta. Preso eta preso ohien artean gizarte-bazterketa pairatzeko hainbat arrazoi ematen dira, eta horiei "espetxeratzea" bera gehitu behar zaie; hau da, denbora luzez espetxean egoteak narriadura-prozesu bat dakar berekin askatasunean egin beharreko bizitzarako, eta horrek, berez, aipaturiko pertsonen askatasuna lortzen dutenenean bizi duten gizarteratze-prozesua zailtzen du. Hori dela eta, ohikoa da denbora luzez espetxean egon diren pertsonen familia- eta gizarte-harremanak hautsi izana, eta batez ere ostatu-baliabideen (laguntzarekin) beharra izatea beren gizarteratze-prozesuekin jarraitu ahal izateko espetxetik irtetean.

2.- Kasu honetan, nabarmentzekoa da Arabako Foru Aldundiak bigarren eta hirugarren graduako presoei ostatu emateko baliabide espezifikoak dituela Arabako Espetxean. Baliabide horiei esker, pertsona horiek komunitatean birgizarteratzeko prozesuak has ditzakete. Ildo horretan, Arartekoak beti adierazi izan du beharrezkoa dela foru-lurraldeen artean hausnarketa bateratua egitea presoak gizarteratzeko baliabideen sare koordinatua izateko, Araban baliabide gehiago izateko behar handiagoa ekidingo duena, lurralde honetan dagoelako Euskadiko espetxe nagusia eta kondena betetzeko zentro bakarra.

Hala eta guztiz ere, kasu honetan, pertsona horrek gizarte- eta komunitate-integrazio maila handiagoetara iristeko duen prozesuak, non foru- eta udal-mailako gizarte-zerbitzuak konprometituta baitaude, ez ditu espero ziren emaitzak eman,

² Adierazi behar dugu kexa-idatzian kexagileak adierazi zuela Salburuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan jakinarazi ziotela ez zituela baldintzak betetzen udal-baliabideetan arreta jasotzeko, eta ez zegoela plazarik kalean bizitzera behartuta egon aurretik.



eta argi geratu da ez dela trantsizio-prozesu on bat gertatu foru- eta udal-dispositiboen artean. Zentzu horretan, agerikoa da oraindik bi administrazio-maila horien arteko koordinazioan hobetzeko marjina dagoela.

3.- Arartekoak jakin badaki Arabako Foru Aldundiak ahalegin handia egin duela lurraldean baztertuta dauden pertsonentzako gizarte-baliabideen sare bat jartzeko, pertsona bakoitzaren beharrezko arabera laguntza-maila desberdinekin. Nolanahi ere, arduraz egiaztatu dugu Gasteizko higiezin merkatuaren azken urteotako egoera dela eta, ia ezinezkoa dela bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako logela bat edo pentsio bat lortzea, diru-sarrera faltagatik zein higiezin merkatuagatik beragatik, ez duelako alokatzen, inolaz ere, bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako irisgarria den logela edo pentsiorik, are gutxiago narriadura pertsonala nabarmena denean. Egoera horren ondorioz, geroz eta jende gehiago etxerik gabe geratzen ari da, eta horrek guztiz hausten ditu norberaren prozesu pertsonalak eta gizarteratze-prozesuak.

Arartekoaren ustez, egoera hori dela eta, Arabako lurralde historikoa zaurgarriekin sozialki gutxiago kohesionatzen den lurralde bihurtzen ari da, herritar guztien bizi-kalitateari eragiten dioten segurtasunari, gizarte-bakeari eta elkartasunari dagokienez atzera egiteko arrisku nabarmenarekin.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Araba Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailari honako gomendio hau egiten zaio:

Gomendioa

1.- Ikusita kexagileak azkar egin zuela okerrera foru-baliabidea utzi zuenetik, eta bazterketa-egoera larri batera itzuli zela (hain zuzen ere, egungo tresna eta irizpide tekniko bidez egiaztatu beharko da egoera hori), gomendatzen dugu berriz azter dadila baztertuta dauden pertsonentzako foru-egoitza baliabide batean plaza bat adjudikatzeko aukera, gizarteratze-prozesua berreskuratu ahal izateko.

2.- Halaber, gizarteratzeko foru- eta udal-zerbitzuen arteko koordinazio-mekanismoak aztertzea gomendatzen da, kexagileak pairatutakoa bezalako haustura-prozesuak saihesteko eta dagoen hobekuntza-marjina aztertzeko.





3.- Azkenik, gomendatzen da Arabako Foru Aldundiak, ukitutako gainerako eragile instituzionalekin batera, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen premiei buruzko hausnarketa- eta azterketa-prozesu bati ekitea, arreta berezia jarritz haien ostatu-premiei, kontuan hartuta, bereziki, espetxean dauden pertsonen gizarte-baliabide horiek berdintasun-baldintzetan eskuratzeko dituzten berezitasunak, kasu bakoitzerako egokiak diren malgutasun-irizpideak sartuz.

